



ZERGA-ZORRAK GERORATZEA ETA ZATIKATZEA

ZERGA-ZORREN ZATIKAPEN BERRIAK

1/2020 FD-A, martxoaren 24koa	XEDAPEN BERRIA
7. art. ³	300.000 euroraino gehitzen da berme-lekapekin geroratu daitezkeen zorraren zenbatekoa (geroratze automatikoak deitutakoak).
	Zatikapena hilean behin egingo da, eta gehienez ere bi urteko epea izango du.
	Eska daitezkeen alde aurreko gutxieneko sarrera honako hau izango da:
	- eskatutakoaren % 20, edo
	- 60.000 €, eskatutako zenbateko osoa 300.000 eurotik gorakoa bada, horrela zatitu beharreko zenbatekoa inoiz ez dadin 300.000 eurotik gorakoa izan.
	Zenbateko hori gehituta, 2020ko martxoaren 14tik aurrera eska daitezkeen zerga-zorrei aplikatuko zaie.

³ **7. artikulua. Zerga-zor jakin batzuen zatikapena**¹. Bermeak osorik edo zati batean salbuesteko, 300.000 euroraino handitzen da [abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren](#) bidez onartutako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Erregelamenduaren 42.1 artikuluko c) eta d) idatz-zatietan aipatzen den zorraren zenbateko osoa.

42.1 artikuluko d) letran jasotako alde aurreko gutxieneko diru-sarrera galdagarria 60.000 eurora arte handitu da, zatikatu beharreko zorra 300.000 eurotik gorakoa izan ez dadin.

2. Gehitutako zenbateko hori 2020ko martxoaren 14tik aurrera eska daitezkeen zerga-zorrei aplikatuko zaie, baldin eta zatikapena Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera eskatzen bada.

3. Diru-bilketako Zuzendariordetza Nagusia izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Erregelamenduaren 42.1 artikuluko c) eta d) letretan aurreikusitako zatikapenak ebazteko organo eskuduna, dekretu foral-arau honetan aurreikusitako berezitasunekin.

4. Foru-dekretu honetan aurreikusten ez den orotarako, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketako Erregelamenduan gerorapen eta zatikapenatarako oro har xedatutakoa aplikatuko da.